

JAIAK > ARROSADIKO JAIK (IRUÑEA)

Berrikuntzaz
betetako jaiak

Larunbatean kalderete lehiaketa egingo dute; eta igandean, berriz, txahal errea prestatuko dute

A. PEREZ
Iruñea

Urtero bezala, Arrosadiko jai batzordea azkeneko asteetan jo eta ke lanean ibili da jaiak ahalik eta ondoena atera daitezzen. Hala ere, batzorde horretako ordezkariak azaldu duten bezala, «aurten ere Udalaren aldetik oraindik ez dugu berririk jaso».

Udaleko arduradunekin izan duten harreman bakarra telefonoz izan da, eta Udalaren arabera bete beharreko baldintzak zeintzuk diren ezagutzera eman badizkiete ere, oraindik ez dute txosnak eta hainbat ekimen gauzatzeko baimenik jaso.

Hala eta guztiz ere, jai batzordekoek oraingoz aurrera jarraituko dute, horren kontrako abisurik jasotzen ez duten bitartean. Iaz ere antzeko egoeran egon ziren, eta hilabete batzuen ondoren hainbat isun jaso zituzten, baimenik gabe ekintzak antolatuz zituztelako.

MUSIKA ETA GASTRONOMIA. Berrikuntza nagusia jaien hasiera eguna izan da. Hasiera ofiziala gaur bada ere, atzo arratsaldeko zortzietan ireki zituzten txosnak. Horrekin batera, auzoko hainbat musika taldek kontzertua eskaini zuten. «Iruñeko beste auzotan egiten duten moduan, Arrotxapea, kasu».

Ez da, baina, auzoko jaietan egongo den berrikuntza bakarra. Izan ere, jai batzordeak adierazi

bezala, «orain arte kalderete lehiaketa igandean egiten genuen eta aurten larunbatean izanen da, modu horretan jende gehiagok parte har dezakeela uste baitugu».

Eta bukatzeko, igandean kaldereteak egin beharrean txahal errea prestatuko dute Ilargi Enea parkean.

Animatzen den jende guztia joan daiteke, 12 euroren truke — txartelak auzoko Albeniz tabernan salgai egongo dira — jaki goxo-goxoak dastatzeko aukera izanen baita.

■ EGITARUA

Gaur

■ **18:00:** Umeen bokoa, Felixa Munarriz plazan.

■ **18:00:** Erretiratuei omenaldia egingo zaie Larrabideko egoitzan. Gero, Ruedita Cubana Azpilagañako dantza taldearekin, Gelbentzu igerlekuan, dantzaldia.

■ **20:00:** Suziria, Felixa Munarriz plazan. AEK-ko irakasleek botako dute, eta orduan izango da zapia jartzeko garaia... Kartel hoberekin egin dituztenei sariak banatuko zaizkie: Jon Garay, Mikel Lizari eta Oihana Pla. Oberenako Fanfarrea, erraldoen konpartsa, peñako kilikiak, kalejira Ilargi Enearekin giroa berotzen has-teko.

■ **20:30:** Maiordomoen dantza, Ilargi Enean.

■ **21:00:** Larrain-dantza.

■ **21:30:** Zezenak izango dira Ilargi Eneako pasealekuan.

■ **22:00:** Zezensuzkoa, Ilargi Enea parkean.

■ **22:15:** Printzearen Harresi haurtzaindegi ondoan, Euskal bertso-jota afaria egingo dute, AEK-k eta EHEK antolatuta.

■ **23:30:** Jai gunean, Trikizio.

Ezpata-dantzariak Yorken

Eibarko Kezka dantza taldea nazioarteko ezpata-dantza jaialdian izan da, Erresuma Batuan

IDOIA ETXEBERRIA

Ezpata-dantza oso gurea sentitu arren, munduko beste hainbat tokitan ere dantzaten da. Sword Spectacular jaialdia izan da horren lekuko, asteburuan: bederati herrialdeko ezpata-dantzariak elkartu ziren Yorken (Erresuma Batua). Eibarko Kezka dantza taldeko dantzariak ordezkatu zuten Euskal Herria. Eta oso harrera ona izan zuten; baita kritika onak ere. Eibararren «40 dantzetatik ikusgarriena» izan zen, Ramon Pelinski unibertsitate irakasle eta musikologoaren arabera.

Italiako, Alemaniako, Txekiako, Belgikako, Norvegiako, Austriako, AEBetako eta Erresuma Batuko taldeekin batera aritu ziren Kezka dantzariak. 50 talde ziren orotara, 700 ezpata-dantzari. Eibartik 30 lagun joan ziren: dantzari, musikari eta laguntzaile. Eta gustura ibili ziren. «Nazioarteko hainbat ezpata-dantza ezagutzeko aukera paregabea izan da». Ingurune historiko ederrean izan zen jaialdia. Hori bai, Kezka taldeko kideek ez zuten Yorkeko parajei begira egoteko asti askorik izan: larunbatean lau emanaldi eskaini zituzten, eta igandean beste horrenbeste.

BIHAR ETA ETZI JAIALDIA. Asteburuan ere hitzordua dute Kezka dantza taldekoek. Ezpata-dantza ez, arku-dantza izango da Ezpalak nazioarteko jaialdiaren gai nagusia aurten. Bihar Iruñean eta etzi Eiba-

rren egingo dute jaialdia. Frantziako, Kanariar uharteetako, Galizia eta Errioxako taldeak bertakoekin elkartzeko dira: Nafarroatik Iruñea eta Monteagudo, Bizkaitik Lanestosa eta Gipuzkoatik Añorga, Oñati eta Eibar izango dira ordezkariak.

Hamasei taldeek arku-dantza bat eskainiko dute gutxienez; batzuek beste zenbait dantza tradizional ere egingo dituzte. Zortzi talde izango dira bihar Iruñean eta beste zortzi igandean Eibarren, Klub Deportivoak antolatutako Euskal Jaietan. Iruñeko 17:30ean hasiko da, kalejirarekin, eta 18:00etatik aurrera emanaldiak egingo dituzte Burgoen plazan. Eibarren, berriz, eguerdian egingo dute kalejira, eta Untzaga plazan ikusi ahal izango dira dantzak, 12:30ean hasita. Datu gehiago: <http://ezpalak.wordpress.com>.



Eibarko Kezka dantza taldeko kideak. Aurreko larunbatean Yorken ateratako argazkia. KEZKA DANTZA TALDEA

ALBERTO
FOTOGRAFO

Argazki digitala

Jai zoriontsuak!

info@albertoestudiofotografico.com

Guelbenzu k, 35 • IRUÑEA - Arrosadia • 948 244 383



KONPONBIDEA GURE ESKU
EKITALDI POLITIKOA
maiatzaren 31n
13:30ean Ilargi Enean
autonomi **aerabakitze**